



LANERAKO FITXA: MUSIKALA

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Pertsona askok osasunaren eta hezkuntzaren aldetik gabezia handiak dauzkatela.

Arazoetarako konponbideak bilatu behar direla.

Elkartasuna, konpromisoa eta lankidetzeta oso garrantzitsuak direla.

GJH: **3.a** eta **6.a**, ur kutsatuarekin lotutako osasun-arazoari egiten zaion aipamenagatik, eta **10.a**, desberdinkeria ekonomikoak eragiten dituen arazoengatik.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Musikala ipuina edo bideoa.

Zikloak 1,2,3

Aurretiazko oharrak

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Garrantzitsua da munduan dauden arazoez jabetzea, baina arazo horien konponbidean inplikatu ere egin behar genuke.
- Gauza batzuk gaizki egiten ditugula konturatzen garenean, horiek zuzentzen saiatu behar dugu.
- Batzuetan, beste pertsona batzuei laguntzea deserosoa gerta dakiguke, baina gainditu egin behar ditugu deserosotasun horiek.

Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Haitiko herritarrak kolera izeneko gaitzarekin gaixotzen ari ziren.
- Edateko ur garbia ez izateagatik zabaltzen da kolera.
- Super Pepok eta bere lagunek ez zuten ezer egin Haitiko neska-mutilei laguntzeko.
- Lukas oso pozik jarri zen musikala egiteko ideiarekin, berari asko gustatzen zaiolako jendaurrean abestea eta dantzatzea.
- Lukasek lagundu egin nahi zien Haitiko hurrei, baina, oso lotsatia zenez, ez zuen musikalean parte hartu.

Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Zenbat pertsonaia ageri dira ipuinean? Gogoratzen al dituzue haien izenak?
- Zer entzun zuen Pepok irratian?
- Zer egin zuen Pepok hurrengo egunean? Zer jakin zuen haurren eskubideei buruz?
- Kolerak zergatik erasaten die pobreei? Ezagutzen al duzue pobreei eragiten dien beste gaixotasunik?
- Garrantzitsua al da Super Pepok jakindakoa bere lagunei kontatzea? Zergatik?
- Zuen ustez, guztiak elkarlanean aritu izan ez balira, lortuko al zuten musikala egitea?
- Gertatu al zaizue inoiz Lukasi bezala, zerbait egiteak lotsa ematea? Lukasek zergatik erabaki zuen azkenean musikalean parte hartzea?
- Zer ikasi dugu istorio honetako pertsonaiengandik?
- Zuen ustez, zein supermaltzur dago istorio honen atzean? Zergatik?

MUSIKALA

Atzo emankizun bat izan genuen eskolan. Ez dakizue ze ederra izan zen. Nire lagunetako inork ez dauka bere ikastetxean gurea bezain ekitaldi-areto handia. Gure musikala entseatzeko asmoz eszenatokira igo ginen lehen egunean ikara pixka bat sartu zitzaigun, gure aurrean hainbeste eserleku hutsik ikustean. Lan handia egin beharko genuen aretoa betetzeko. Eta bai, lan handia egin genuen. Azkenean, sarrera guztiak saldu genituen!

Irakasleak esan zigun ez ibiltzeko gortinen atzetik begira, baina, irrika biziz geundenez, oihalaren ertz batetik kontuz-kontuz begiratu genuen.

Hantxe zeuden gure ikaskideak, baita gure familiak eta lagunak ere. Oso urduri geunden, baina oso pozik ere bai, helburu garrantzitsu bat lortu genuelako: beharrean zeuden pertsona askori laguntzea. Kontatuko dizuet nola hasi zen abentura hau guztia duela bi hilabete:

Gau batean, ni jada ohean sartuta nengoela, amak sukaldean piztuta zeukan irratia entzuten hasi nintzen. Irratian esaten ari ziren Haiti izeneko herrialde batean kolera zabaldu zela eta jende asko gaixotzen ari zela. Esaten zuten kolera pobreei bakarrik erasaten diela.

—Ez dago eskubiderik! —esan zuen nire amak.

Kezkatuta geratu nintzen eta ezin izan nuen lo hartu. Galdera asko etortzen zitzaizkidan burura:

Zein da pobreei bakarrik erasaten dien gaixotasun hori? Dirua dutenei ez die kalterik egiten, eta pobreei bai? Beldurtuta geratu nintzen, nik kontsola bat erosi berri nuelako eta itsulapikoa dirurik gabe neukalako.

Eta zergatik esan zuen amak «ez dago eskubiderik»? Etxean, batzuetan esaten didate betebeharrak eta eskubideak dauzkadala. Ni beti saiatzen naiz eskubide gehiago izaten, baina ez nuen uste gaixo ez egoteko eskubidea eskatu behar izango nuenik.

Ai ene! Itsulapikoa dirurik gabe daukadalako arazoak izango ote ditut?

Hurrengo egunean, ikertzen hasi nintzen. Superheroien Akademian, beti esaten digute zalantzaren bat izanez gero, informazioa bilatzeko. Deskubritu nuenak harrিতuta utzi ninduen, eta haserre ere bai.

Dirudienez, edateko ur garbirik ez daukaten lekuetan sortzen da kolera, eta ur zikinak eramateko estoldarik ez dagoen lekuetan. Horregatik erasaten die pobreei!

Baina, gainera, kolera sendatzea oso erraza da: ur garbia besterik ez da behar! Ze sendagai merkea! Orduan, nola da posible hainbeste jende egotea gaixo? Hemen, kanila irekiz gero, nahi beste ur ateratzen da!

Oso triste jarri nintzen, egoera erabat bidegabea dela konturatu nintzelako. Pobreak gaixotu egiten dira bizi diren lekuan ez daukatelako ur garbirik, eta ur zikinak eramateko estoldarik ez dutelako.

Eta eskubideei buruz, zer esan? Konturatu nintzen neska-mutil askok ez daukatela jaiotzen direnetik osasuna eta janaria izateko eta eskolara joan ahal izateko aukera.

Aurkitu nuen informazioa lagunei kontatu nien, eta Haitin kolerarekin gertatzen ari zena ere bai. Ezin zuten sinetsi.

Emmaren ahizpa zaharrenak, Sandrak, esan zigun:

—Mundu hau bidegabea da. Pertsona askok ez dauzkate ezta oinarrizko

eskubideak ere.

—Eta guk zer egin dezakegu? —galdetu nuen.

Emmak, bat-batean, esan zuen:

—Haitira joan behar dugu!

Denok harrituta geratu ginen berari begira.

—Emma, zortzi urte ditugu. Ezin dugu haraino joan.

—Ba egongo da haiei laguntzeko beste modurik.

Sandrak esan zuen:

—Horretarako daude gobernuz kanpoko erakundeak. Dirua bil dezakegu, eta erakunde horietako bati eman, gaixotasuna desagerrarazteko eta jendea sendatzeko.

—Gutako bakoitzak itsulapikoan daukagun dirua bilduta nahikoa izango da?

—galdetu nuen.

—Ez —esan zuen Sandrak—. Eta, gainera, ahalik eta jende gehienari eman behar diogu honen berri. Jende askoren laguntza jaso ahal izateko moduren bat aurkitu behar dugu.

—Badakit zer egin! Badakit zer egin! Musikal bat! —esan zuen Emmak.

Berak oso ondo dantzaten eta abesten zuen, txikitandik.

Guztioi asko gustatu zitzaigun bere ideia; beraz, berehala andereñoarengana joan ginen, eta bururatu zitzaiguna kontatu genion. Harrituta geratu zen guri begira, eta esan zigun:

—Ideia bikaina iruditzen zait. Haurren eskubideei buruzko musikal bat egin dezakezue. Behar duzuen guztian lagunduko dizuet.

Lukasi gure ideia ez zitzaion batere gustatu. Lukas oso lotsatia da. Andereñoak ikasgelan zerbait galdetzen dion bakoitzean, gorri-gorria jartzen da, izerditan hasten da, eta asko kostatzen zaio hitz egiten hastea. Beraz, jende pila baten aurrean dantzatzeak eta abesteak sekulako lotsa ematen zion!

Entseatzen aritu ginen lehenengo astean, Lukas ez zen behin ere etorri. Eta, egun batean, Lukasek laguntza eskatu zion Emmari, bere arrearentzat opari bat erosteko. Pentsatzen zuen dendara joan eta galderaren bat egin behar izanez gero, ez zela gai izango dendariari ezer galdetzeko; horregatik nahi zuen norbaitek laguntzea.

Emma berarekin joan zen, baina Lukasek denbora asko behar izan zuen oparia aukeratzeko, eta berandutu egin zitzaion.

—Zazpiak dira-eta! Duela ordubete joan behar nuen entseatzera! —esan zuen Emmak—. Gaur paperak banatu behar zituzten, eta gutako bakoitzak bere gustukoena aukeratu behar zuen.

—Barkatu, Emma. Nire erruagatik, berandu iritsiko zara eta ezin izango duzu zure gustuko pertsonaia aukeratu.

—Lasai, Lukas. Garrantzitsuena musikalean parte hartzea da. Pertsonaiarenak ez du hainbeste axola. Agur, bihar arte!

Emma korrika joan zen bere etxera, eta Lukas pentsakor gelditu zen. Berari laguntzeagatik, pertsonaia aukeratu gabe geratu zen, eta bera, lotsa pixka bat izateagatik, ez zen gai jende askori lagunduko zion emankizun batean parte hartzeko.

Hurrengo egunean, Lukas entsegura joan zen. Denak oso pozik jarri ziren. Zuhaitzaren papera betetzea egokitu zitzaion.

Emankizunaren egunean, Lukas oso urduri zegoen. Lasaitzeko, pentsatu



zuen Haitiko gaixoak bera baino askoz okerrago egongo zirela. Merezi zuen haiengatik lotsa gairatzeko ahalegina egitea.

Emankizuna amaitutakoan, ikusleak hamar minutuz aritu ziren txaloka! Baina andereñoak zenbat diru bildu genuen esan zuenean entzun zen txalozaparradarik handiena. Guztiok poz-pezik geunden lortu genuenarekin. Merezi izan zuen ahalegina egitea.

Eta Lukasek erakutsi zigun benetako superheroiak ez direla sekula beldurrik ez dutenak, baizik eta, berak bezala, besteei lagundu ahal izateko, beldurrari aurre egiten diotenak.